

## Europako Ganbera Orkestrak Kurasaalean joko du urrian

Dresdeko Ganbera Abesbatza eta Birmingham Hiriko Orkestra ere ariko dira 2010-11 denboraldian

Erredakzioa Donostia

Europako Ganbera Orkestra, Dresdeko Ganbera Abesbatza, Rolando Villazon tenorra, Sevillako Orkestra Barrokoa, Emanuel Ax pianista, Giardino Armonico eta Birmingham Hiriko Orkestra Sinfonikoa ariko dira Donostiako Kurasaal auditoriumean, Kurasaal Fundazioak musika klasikoari eskainitako 2010-11 denboraldiko programazioan.

Europako Ganbera Orkestrarena izango da denboraldiko aurreneko emanaldia, urriaren 13an. Kontzertu horretan Yannick Nezet-Seguín ariko da zuzendari lanetan. Janine Jansen biolinista ere ariko da emanaldi horretan.

Dresdeko Ganbera Abesbatza Mendelssohn Kammerorchester Leipzigeekin ariko da Kurasaaleko emanaldian, urriaren 21ean.

## Haurrak Laboa kantari

Lekaroz, Hendaia, Baigorri eta Donibane Garaziko 200 ikaslek abeslaria omenduko dute gaur Baigorriin

Nora Arbelbide Baiona

«Orain da mementoa Mikel Laboa hurrei transmititzeko». Begi bistakoa egin zaio Denise Olhagarairi, Baigorri eta Donibane Garaziko kolegio publikoetako musika irakasleari. Bada orain 17 urte 12 eta 15 urteko ikasleen abesbatzak zuzentzen dituela. Ikastorduetatik kanpo, urtero gai berezi bat lantzen dute, eta aurtentzen Mikel Laboak utzi ondatsuna berenganatuz iragan dute urtea. Iaz Itoiz zuten landu, eta arrakasta ederra jaso zuten. Hendaia (Lapurdi) Irandatz ikastetxean ere lan beretan aritu da Josean San Miguel irakaslea.

Hain zuzen, joan den udan bi irakasleak elkartu, eta Laboak utzi 160tik gora kantuak entzutea izan zuten lehen urratsa. Kantu herrikoiak, esperimentalak eta olerki garaikideen artean hautaketa egin, eta abesbatzendako eta bereziki ikasleendako eskuragarri izan daitezkeen kantu zatien

moldaketa lanetan jarri zen Josean San Miguel. Bizpahiru bozetan landu du kantu bakoitza. Hazparneko Lagunarte konpainiako musikariekin grabatu zuten lehen bertsio bat bi irakasleek, ikasleek euskarri, bat izateko gisan.

Urtea aitzinatu arau, proiektuari elkartu zaio Lekarozko (Nafarroa) ikastetxea. Ikasleen arteko trukatzeko garatzeko aukera ere eman baitie egitasmo horrek. Bakoitzak bere aldetik landu ondoren, lau ikastetxeetako 200 haur dira elkartuko orota-

### Koralentzako egokitu dituzte kantu guztiak, bizpahiru bozetan emateko gisan

ra gaur Baigorriko Plaza Xokon. Bi aldiz ariko dira. Lehenik, 18:00etan, eta ondotik, 21:00etan. Lehen eta azken emanaldiak izanen dira. Lagunarteko musikariak hor izanen dituzte zuzenean ere. Hamabost bat kantu emanen dituzte orotara, jakinez horietako zenbait nahas-mahas batean elkartuak dituzte. Ikusgarria osatzeko, urte osoan hamar bat ikasleek landu duten *metamaleta* izeneko tresnarekin inprobisatze

unea izanen dute. Kanpoan grabatutako soinuak ordenagailura sartu eta tresna horren botoiekin esker soinu horiekin zuzenean jolasteko aukera daukate. Soinuez gain, bideoek ere aberastuko dute une hori. «Collage bat izanen da, Laboak berak egiten zuen bezala», esplikatu du Olhagaraiak.

Kantuak berak, zenbait jadanik ezagutzen zituzten ikasleek, *Txoria txori* eta *Gure bazterrak* barne. Kantu herrikoiak ere errazki berenganatu dituzte, *Oi Peio Peio* eta *Haika mutil*: «Melodia simple eta ederrak baitira». Lana zailagoa izan du Olhagaraiak *Ez nau izutzen negu hurbilak* gisako kantuekin. Paperik gabe ari baitira, eta anitz ez baitira euskaldunak. Frantsesez egin behar ditu Olhagaraiak, baina kantuen bidez euskarari hurbiltzeko urrats bat izan daiteke. Euskaraz osoki, tailer bat ere badute eskolan. Horiekin aurtentzen makilaren gaia landu du Olhagaraiak. Omenaldia baino lehen aurkeztuko dute, dokumental labur bat eta guzti.

Mikel Laboaren musiken egokipenak berak interesatua den ororentzat eskuragarri izateko nola egin ari dira gogoetatzen, baina oraino ez da deus finkaturik.

## Material grafiko autoeditatuaren erakusleiho izango da bihar Alondegia

Komikiak, fanzineak blog digitalak eta gisakoak ezagutaraziko ditu 'Autoeditatuak' topaketak

Erredakzioa Bilbo

Euskarri fisiko nahiz digitaletan autoeditatutako material grafikoak batu eta ezagutaraziko du *Autoeditatuak* topaketak bihar, 11:00etatik 20:00etara, Bilboko Alondegiko erdiko plazan: komikiak, fanzineak, aldizkariak, blog digitalak... Parte-hartzaileen artean Jon Manzisidor *Mantxi*, Perinan Goñi, *Noiz* agenda kulturala, *El Karma* aldizkaria, Anti-liburu denda eta Never Late To Espabilate daude, besteak beste.

Parte-hartzaile bakoitzak erakusmahai bat izango du, bere lanak erakusteko, eta 12:00etatik 14:00etara jarduerak aurkezteko aukera izango dute, 10-15 minutuko hitzaldi laburren bitartez. Horretaz gain, K.O. Komik Online lehiaketarako hautatutako lanak ikusteko aukera izango da.

euskalherriko **PLAZA**

nor gara? laguntza • harremana

**Jantzien kategoriako artikulu guztiek, ekainaren 21a bitartean, bidalketa gastuak doan!**












www.euskalherriko **PLAZA**.com









Euskal Herriko Plaza orrialdea



EHkoPLAZA

>>erosi gurean